



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.05.14

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Beloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko maiatzaren hamalauan, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

1. **Aurreko akta onartzea.**
2. **Oriaburu eraikinean barne-erreformak, 1. solairua. Coworking erabilerara egokitzeko obren 3. ziurtagiria-likidazioa (1024/2018 faktura).**
3. **“Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua”-n jasotako obren 9. ziurtagiria-likidazioa (v-18/0142 eta v-18/141 fakturak).**
4. **Tolosako zezen-plazako egokitzapen proiektuaren 2. faseko obren 2. ziurtagiria-likidazioa (017/18 faktura).**
5. **“Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua”-n jasotako obren 8. ziurtagiria-likidazioa (18/02/021, 18/02/22 eta 18/02/23 fakturak).**
6. **Construcciones Otegi Gaztañaga, S.L., enpresak egindako eskaera Berazubiko biribilgunearen eta suhiltzaileen arteko irisgarritasun obren gauzatze epea luzatzeko.**
7. **“15.1. Tolosa-Igarondo” azpiesparruko urbanizazio proiektua. Urbanizazioko lehenengo fasea hartzea (txosten teknikoa).**



TOLOSAKO
UDALA

8. Energia elektrikoaren hornidura. Foru kontratazioaren zentralaren esleipen proposamena. Iberdrola Clientes SAU.
9. TAO guneen berrantolaketa.
10. 21/2018 eta 22/2018 faktura-zerrendak.

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko maiatzaren 7an egindako batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. ORIABURU ERAIKINEAN BARNE-ERREFORMAK, 1. SOLAIRUA, COWORKING ERABILERARA EGOKITZEKO OBREN 3. ZIURTAGIRIA-LIKIDAZIOA (1024/2018 FAKTURA).

Tolosako Udalak Construcciones Echaide SA enpresari esleitu zion Oriaburu eraikinaren lehenengo solairua egokitzeko barne-egokitzapenen obren kontratua, 102.697,68 € (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria.....1074/2017.....22.061,68 €

2. ziurtagiria1107/2017.....38.147,94 €

GUZTIRA.....60.209,62 €



TOLOSAKO
UDALA

Orain aurkezturiko ziurtagiria obrako hirugarrena da eta, aldi berean, likidazioa ere bada:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

3. ziurtagiria-likidazioa1024/2018.....45.320,88 €

GUZTIRA.....45.320,88 €

Azken ziurtagiri hau kontuan izanda, obraren egoera ekonomikoa ondoren jasotzen den moduan geratzen da:

ORIABURU ERAIKINEKO LEHEN SOLAIRUKO OBRAK

OBRAK					
ADJUDIKAZIOA					102.697,68
ZENBAKIA	FAKTURA ZB	OINARRIA		GUZTIRA	PORTZENTAIA
		OINARRIA	BEZA		
1	1074/2017	18.232,79	3.828,89	22.061,68	%21,48
2	1107/2017	31.527,22	6.620,72	38.147,94	%37,15
3-LIKIDAZIOA	1024/2018	37.455,27	7.865,61	45.320,88	%44,13
GUZTIRA		87.215,28	18.315,22	105.530,50	%102,76

Ikus daitekeenez, adjudikazioarekiko hazkunde bat izan da likidazioko azken kopuruan, % 2,76koa hain zuzen ere.

Aldaketa horiek neurketen igoera baten ondorioa dira, obra-zuzendaritzaren txostenean jasotzen den moduan.

Ziurtagiririan ondorengo kopuruak azaltzen dira::

- Obrako likidazioa.....105.530,55 €
- 3. ziurtagiria.....45.320,88 €

Ziurtagiria hau azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU



LEHENA.- Onartzea Oriaburu eraikinaren barne-erreformen obren 3. ziurtagiria, 45.320,88 eurokoa.

BIGARRENA.- Onartzea Oriaburu eraikinaren barne-erreformen obren azken likidazioa, 105,530,55 eurokoa.

HIRUGARRENA.- Faktura ordaintzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea esleipendunari, "Construcciones Echaide, S.A." enpresari, eta Kontuhartzailtzari.

3. "BIDEBIETA AUZOA ETA BIZKAIA KALEA URBANIZATZEKO PROIEKTUA"-N JASOTAKO OBREN 9. ZIURTAGIRIA-LIKIDAZIOA (V-18/0142 ETA V-18/141 FAKTURAK).

Tolosako Udalak Altuna y Uria SA enpresari esleitu zion "Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua"n jasotako obren kontratua, 847.672,87 € (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	V-17/0371.....	14.251,27 €
1. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0372.....	4.516,93 €
2. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	V-17/0441.....	33.207,58 €
2. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0440.....	9.975,11 €
3. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	V-17/0529.....	58.215,24 €
3. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0530.....	8.887,46 €
4. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	V-17/0587.....	131.440,40 €
4. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0588.....	16.554,62 €
5. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	V-17/0698.....	90.984,71 €
5. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0699.....	7.509,84 €
6. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	V-17/0798.....	124.197,51 €
7. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	V-17/0910.....	87.084,07 €



TOLOSAKO
UDALA

8. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....V-17/1001.....120.673,62 €

GUZTIRA.....707.498,37 €

Orain aurkezturiko ziurtagiria obrako bederatzigarrena da eta, aldi berean, likidazioa da:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

9. ziurt.-likidazioa (% 21eko BEZa).....V-18/0142.....147.800,21 €

9. ziurt.-likidazioa (BEZa).....V-18/0141.....28.425,39 €

GUZTIRA.....176.225,60 €

Kopuru horretan sartuta daude ur-hornidurako eta ur zikinen sareen berrikuntzak, Gipuzkoako Urak enpresari dagozkionak (V-18/0141 faktura).

Azken ziurtagiri hau kontuan izanda, obraren egoera ekonomikoa ondoren jasotzen den moduan geratzen da:

OBRAK					
ADJUDIKAZIOA (BEZA BARNE)					847.672,87
ZENBAKIA	FAKTURA ZB	OINARRIA		GUZTIRA	PORTZENTAIA
		OINARRIA	BEZA		
1	V-17/0371	11.777,91	2.473,36	14.251,27	%1,68
	V-17/0372	4.516,93	0,00	4.516,93	%0,53
2	V-17/0441	27.444,28	5.763,30	33.207,58	%3,92
	V-17/0440	9.975,11	0,00	9.975,11	%1,18
3	V-17/0529	48.111,77	10.103,47	58.215,24	%6,87
	V-17/0530	8.887,46	0,00	8.887,46	%1,05
4	V-17/0587	108.628,43	22.811,97	131.440,40	%15,51
	V-17/0588	16.554,62	0,00	16.554,62	%1,95
5	V-17/0698	75.193,98	15.790,74	90.984,72	%10,73
	V-17/0699	7.509,84	0,00	7.509,84	%0,89
6	V-17/0798	102.642,57	21.554,94	124.197,51	%14,65
	-----	0,00	0,00	0,00	%0,00
7	V-17/0910	71.970,30	15.113,76	87.084,06	%10,27
	-----	0,00	0,00	0,00	%0,00
8	V-17/1001	99.730,27	20.943,36	120.673,63	%14,24
	V-17/1001	0,00	0,00	0,00	%0,00
9-LIKIDAZIOA	V-18/0142	122.148,94	25.651,28	147.800,22	%17,44
	V-18/0141	28.425,39	0,00	28.425,39	%3,35



Ikus daitekeenez, adjudikazioarekiko hazkunde bat izan da likidazioko azken kopuruan, % 4,25ekoa, hain zuzen ere.

Obra-zuzendaritzaren txostenean jasotzen den moduan, hazkundearen kopuru handiena izan da ur horniduraren azpiegituran eginiko zenbait aldaketa dela-eta. Aldaketa horiek ontzat eman ziren 2017ko azaroaren 17an sinaturiko 2074/2017 alkatearen Dekretu bidez. Kontzeptu horiek aldera batera utziz gero, obrak berak izan duen igoera, neurketei dagokienez, % 0,23koa izan da.

Kopuru horietan, BEZik gabeko kontzeptuak Ur Zerbitzuak enpresari dagozkio. Laburpen modura, ondorengoak dira Ur Zerbitzuak enpresak obra honetan finantzatu behar dituen kopuruak:

GIPUZKOAKO URAK

- 1. ziurtagiria.....4.516,93 €
- 2. ziurtagiria.....9.975,11 €
- 3. ziurtagiria.....8.887,46 €
- 4. ziurtagiria.....16.554,62 €
- 5. ziurtagiria.....7.509,84 €
- 6. ziurtagiria.....0 €
- 7. ziurtagiria.....0 €
- 8. ziurtagiria.....0 €
- 9. ziurtagiria-likidazioa.....28.425,39 €
- **GUZTIRA**.....75.869,35 €

Ziurtagirian aztertu ondorengo kopuruak azaltzen dira.

- Obrako likidazioa.....883.723,98 €
- 9. ziurtagiria.....176.225,60 €
 - Udala.....147.800,21 €
 - Ur Zerbitzuak.....28.425,39 €

Aurrekoa ikusirik eta udal teknikariaren proposamena azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektuan jasotako obren 9. likidazioa. Kopurua: 176.225,60 euro. Kopuru hori honela zatituta dago:

- Udala.....147.800,21 €
- Ur Zerbitzuak.....28.425,39 €



TOLOSAKO
UDALA

BIGARRENA.- Sinatutako hitzarmenaren arabera, ziurtagirian sartuta dagoen ondorengo kopurua eskatzea enpresa honi:

Ur zerbitzuak: 28.425,39

HIRUGARRENA.- Faktura ordaintzea.

LAUGARRENA.- Onartzea Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektuan jasotako obren azken likidazioa, 883.723,98 eurokoa.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea esleipendunari, Altuna y Uria, SA. enpresari, eta Kontuhartzaitzari.

4. TOLOSAKO ZEZEN-PLAZAKO EGOKITZAPEN PROIEKTUAREN 2. FASEKO OBREN 2. ZIURTAGIRIA-LIKIDAZIOA (017/18 FAKTURA).

Tolosako Udalak Murgil Eraikuntzak SL enpresari esleitu zion "Zezen-plazako egokitzapen proiektuaren bigarren fasea" egiteko obren kontratua, 178.169,62 € (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria.....116-1/17.....78.394,80 €

GUZTIRA.....78.394,80 €

Orain aurkezturiko ziurtagiria obrako bigarrena da eta, aldi berean, likidazioa da:

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

2. ziurt.-likidazioa.....017/18.....103.812,70 €

GUZTIRA.....103.812,70 €



TOLOSAKO
UDALA

Azken ziurtagiri hau kontuan izanda, obraren egoera ekonomikoa ondoren jasotzen den moduan geratzen da:

OBRAK					
ADJUDIKAZIOA					178.169,62
ZENBAKIA	FAKTURA ZB	OINARRIA		GUZTIRA	PORTZENTAIA
		OINARRIA	BEZA		
1	116-1/17	64.789,09	13.605,71	78.394,80	%44,00
2-LIKIDAZIOA	017/18	85.795,62	18.017,08	103.812,70	%58,27

Ikus daitekeenez, adjudikazioarekiko hazkunde bat izan da likidazioko azken kopuruan, % 2,27koa, hain zuzen ere.

Aldaketa horiek neurketen igoera baten ondorioa dira, obra-zuzendaritzaren txostenean jasotzen den moduan.

Ziurtagirian ondorengo kopuruak azaltzen dira:

- Obrako likidazioa.....182.207,50 €
- 2. ziurtagiria.....103.812,70 €

Ziurtagiri hau aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Zezen-plazako egokitzapen proiektuaren 2. faseko obraren 2. ziurtagiria, 103.810,70 eurokoa.

BIGARRENA.- Onartzea Zezen-plazako egokitzapen proiektuaren 2. faseko obraren azken likidazioa, 182.207,50 eurokoa.

HIRUGARRENA.- Faktura ordaintzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea esleipendunari, Murgil Eraikuntzak, S.L. enpresari, eta Kontuhartzaitzari



5. "NAFARROA ETORBIDEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO URBANIZAZIO PROIEKTUA"-N JASOTAKO OBREN 8. ZIURTAGIRIA-LIKIDAZIOA (18/02/021, 18/02/22 ETA 18/02/23 FAKTURAK).

Tolosako Udalak Construcciones Moyua, S.L. enpresari esleitu zion "Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektua"n jasotako obren kontratua, 988.664,20 € (BEZa barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

1. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	792/17/CMSL.....	41.943,82 €
1. ziurtagiria (BEZik gabe).....	793/17/CMSL.....	5.948,06 €
2. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	901/17/CMSL.....	58.423,39 €
2. ziurtagiria (BEZik gabe).....	902/17/CMSL.....	12.273,36 €
3. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	1065/17/CMSL.....	116.629,34 €
3. ziurtagiria (BEZik gabe).....	1066/17/CMSL.....	18.318,82 €
4. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	1284/17/CMSL.....	181.375,75 €
4. ziurtagiria (BEZik gabe).....	1285/17/CMSL.....	41.407,12 €
5. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	1682/17/CMSL.....	138.083,55 €
5. ziurtagiria (BEZik gabe).....	1517/17/CMSL.....	24.985,51 €
6. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	1683/17/CMSL.....	151.413,79 €
6. ziurtagiria (BEZik gabe).....	1684/17/CMSL.....	30.833,52 €
7. ziurtagiria (% 21eko BEZa).....	1823/17/CMSL.....	150.984,91 €

GUZTIRA.....972.620,94 €

Orain aurkezturiko ziurtagiria obrako zortzigarrena da eta, aldi berean, likidazioa :

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia.....Zenbatekoa

8. ziurt.-likidazioa (% 21eko BEZa).....	18/02/022.....	30.294,26 €
8. ziurt.-likidazioa (BEZik gabe).....	18/02/021.....	5.358,30 €
• Ur zikinak eta ur-hornidura.....		2.095,63 €
• Argindarra.....		3.262,67 €
8. ziurt.-likidazioa (BEZik gabe).....	18/02/023.....	34.824,62 €

GUZTIRA.....70.477,18 €



Azken ziurtagiri hau kontuan izanda, obraren egoera ekonomikoa ondoren jasotzen den moduan geratzen da:

OBRAK					
ADJUDIKAZIOA (BEZA KANPO)					839.924,85
ZENBAKIA	FAKTURA ZB	OINARRIA		GUZTIRA	PORTZENTAIA
		OINARRIA	BEZA		
1	792/17/CMSL	34.664,31	7.279,51	41.943,82	%4,13
	793/17/CMSL	5.948,06	0,00	5.948,06	%0,71
2	901/17/CMSL	48.283,79	10.139,60	58.423,39	%5,75
	902/17/CMSL	12.273,36	0,00	12.273,36	%1,46
3	1065/17/CMSL	96.387,89	20.241,46	116.629,35	%11,48
	1066/17/CMSL	18.318,82	0,00	18.318,82	%2,18
4	1284/17/CMSL	149.897,31	31.478,44	181.375,75	%17,85
	1285/17/CMSL	41.407,12	0,00	41.407,12	%4,93
5	1516/17/CMSL	114.118,64	23.964,91	138.083,55	%13,59
	1517/17/CMSL	24.985,51	0,00	24.985,51	%2,97
6	1683/17/CMSL	125.135,36	26.278,43	151.413,79	%14,90
	1684/17/CMSL	30.833,52	0,00	30.833,52	%3,67
7	1823/17/CMSL	124.780,92	26.203,99	150.984,91	%14,86
	-----	0,00	0,00	0,00	%0,00
8-LIKIDAZIOA	18/02/022	25.036,58	5.257,68	30.294,26	%2,98
	18/02/021	5.358,30	0,00	5.358,30	%0,64

Ikus daitekeenez, adjudikazioarekiko hazkunde bat izan da likidazioko azken kopuruan, % 6,23koa, hain zuzen ere.

Hazkundearen arrazoia izan da zenbait neurketaren gorakada, obra-zuzendaritzak egin duen txostenean jasotzen den bezala.

Kopuru horietan, BEZik gabeko kontzeptuak Ur Zerbitzuak eta Tolargi enpresei dagozkie. Laburpen modura, ondorengoak dira enpresa bakoitzak obra honetan finantzatu behar dituen kopuruak:

A) TOLARGI

- 1. ziurtagiria.....0 €
- 2. ziurtagiria.....4.902,33 €
- 3. ziurtagiria.....3.562,28 €
- 4. ziurtagiria.....7.363,72 €
- 5. ziurtagiria.....9.148,00 €
- 6. ziurtagiria.....6.882,98 €
- 7. ziurtagiria.....0 €
- 8. ziurtagiria likidazioa.....3.262,67 €
- *GUZTIRA (BEZa kanpo)*.....35.121,98 €



B) GIPUZKOAKO URAK

- 1. ziurtagiria.....5.948,06 €
- 2. ziurtagiria.....7.371,03 €
- 3. ziurtagiria.....14.756,54 €
- 4. ziurtagiria.....34.043,40 €
- 5. ziurtagiria.....15.837,51 €
- 6. ziurtagiria.....23.950,54 €
- 7. ziurtagiria.....0 €
- 8. ziurtagiria likidazioa.....2.095,63 €
- *GUZTIRA (BEZa kanpo).....104.002,71 €*

Bestalde, 2017ko urtarrilean Gipuzkoako Ur Kontsorzioak eta Tolosako Udalak sinaturiko lan hitzarmenaren 1. erabakiak honakoa dio:

LEHENA.- Tolosako Udalak honako proiektuan jasotako obrak egingo ditu, "NAFARROA ETORBIDEKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN ALDAKETA", 1.273.570,25 euroko aurrekontuarekin. Obra horien barne, ur-zikinaren saneamendu eta ur horniduraren sareen berrikuntza lanak aurreikusten dira, eta horien kopurua BEZ-a kontuan hartuta 118.717,19 eurokoa da.

Bestalde euri-uren saneamendu sarearen egokitzapenerako aldaketen aurrekontua, laugarren aurrekarian azaldu den modura, 42.137,79 eurokoa da.

Kopuru hori erantsita, Gipuzkoako Urak enpresak ordaindu beharreko diru-kopurua honakoa da, BEZik gabe:

- Ur zikinak eta ur-hornidura.....104.002,71 €
- Euri-uren gainkostua.....34.824,62 €
- *GUZTIRA (BEZa kanpo).....138.827,33 €*

Ziurtagirian ondorengo kopuruak azaltzen dira

- Obrako likidazioa.....1.043.098,13 €
- 8. ziurtagiria.....70.477,18 €
 - Udala (BEZa barne).....30.294,26 €
 - Ur Zerbitzuak (BEZik gabe).....2.095,63 €
 - Tolargi (BEZik gabe).....3.262,67 €
 - Ur Zerbitzuak (BEZik gabe).....34.824,62 €

Ziurtagiria hau azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektuan jasotako 8. likidazioa. Kopurua: 70.477,18 euro. Kopuru hori horrela zatituta dago:

- Udala (BEZa barne)30.294,26 €
- Ur Zerbitzuak (BEZik gabe).....2.095,63 €
- Tolargi (BEZik gabe).....3.262,67 €
- Ur Zerbitzuak (BEZik gabe).....34.824,62 €

BIGARRENA.- Sinatutako hitzarmenaren arabera, ziurtagirian sartuta dauden ondorengo kopuruak eskatzea enpresa hauei:

- Ur zerbitzuak: BEZik gabe.....36.920,25 €
- Tolargi: BEZik gabe..... 3.262,67 €

HIRUGARRENA.- Faktura ordaintzea.

LAUGARRENA.- Onartzea Nafarroa etorbideko irisgarritasuna hobetzeko urbanizazio proiektuan jasotako obren azken likidazioa, 1.043.098,13 eurokoa.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea esleipendunari, Construcciones Moyua S.L. enpresari, eta Kontuhartzaitzari.

6. CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA, S.L., ENPRESAK EGINDAKO ESKAERA BERAZUBIKO BIRIBILGUNEAREN ETA SUHILTZAILEEN ARTEKO IRISGARRITASUN OBREN GAUZATZE EPEA LUZATZEKO.

Construcciones Otegi Gatzañaga, S.L., enpresak goian azaldutako obren exekuzio epearen luzapena eskatu du, hain zuzen, maiatzaren 16ra arte luzatzea.

Obra horien zuinketa akta 2018ko otsailaren 14an sinatu zen eta obren epea bi hilabetekoa izanda, apirilaren 14an bukatzen zen epe hori.

Luzapenaren arrazoiak ondorengoak dira:

- Inauteriak zirela eta, ez zuten obren lurren erabilgarritasuna izan zuinketa akta egin zenean.



TOLOSAKO
UDALA

- Egin beharreko ezponda handiagoa izan da, eta, ondorioz, obren okupazioa handiagoa izan da.
- Otsailean eta martxoan egin duen eguraldi txarraren ondorioz, obra atzeratu egin da, egun askotan lanak etenaldiak izan dituelarik
- Argiteria berriaren hornidura atzeratu egin da maiatzaren 3ra arte, nahiz eta eskaera otsailaren hasieran egin.

Obra Zuzendaritzak, Injelan S.L. enpresak, 2018 maiatzaren 7an aurkeztu du txostena eta ontzat eman du "Construcciones Otegi Gaztañaga, S.L." enpresak eman dituen arrazoiak obra epea luzatzeko.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Onartzea "Construcciones Otegi Gaztañaga, S.L." enpresak egindako eskaera, eta maiatzaren 16ra arte luzatzea epea Berazubiko biribilgunearen eta suhiltzaileen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektuaren 2. eta 3. faseko obrak gauzatzeko.

BIGARRENA.- Ebazpena jakinaraztea "Construcciones Otegi Gaztañaga, S.L." enpresari, Obra Zuzendaritzari, Injelan S.L., enpresari eta Hirigintza Departamentuari.

7. "15.1. TOLOSA-IGARONDO" AZPIESPARRUKO URBANIZAZIO PROIEKTUA. URBANIZAZIOKO LEHENENGO FASEA HARTZEA (TXOSTEN TEKNIKOA).

AURREKARIAK:

2015/10/20: Urbanizatzeko Jarduketa Programak behin betiko onespina jaso zuen. Dokumentu horretan eraikuntza eta urbanizazioa bi fasetan egitea mahaigaineratu zen, eta horrela onartu zen dokumentua.

2015/11/10: Urbanizazio proiektu aldatuaren testu bateratuak behin betiko onespina jaso zuen.

2018/02/27: Urbanizazioaren obra-bukaera aurkeztu zuten (1. fasekoa).

2018/03/13: Etxebizitzen, lokalen eta garajeen lehenengo erabilerako lizentzia eskatu zuten (1. fasea). Ikusi espediente hau: 2015H3160010 – 25307/2015/23 – B537/2015/14.

2018/04/13: Urbanizazioko lehenengo fasea hartzeko bermeei buruzko txosten teknikoa egin zen (Ikusi TR18_034).



TOLOSAKO
UDALA

2018/04/13: Ikusi GL18039 txostena: "15.1 Tolosana azpiesparruko urbanizazioaren hartze partziala dela eta, honen egokitasunaren eta, bere kasuan, aurkeztu beharreko balei buruzko txostena"

2018/05/08: Udal ingeniari teknikoak urbanizazioko lehenengo fasea hartzeko txosten teknikoa egin zuen (txosten teknikoa).

TXOSTENA:

Txosten hau idazten da informazioa emateko urbanizazioko lehenengo fasea hartzeari buruz. Txosten hau udal ingeniari teknikoak idatzitako txostenaren gehigarria da (Ikusi AE 018025). Txosten honetan ez dira aztertu hiri-instalazioak eta zerbitzu-enpresen txostenak.

Txosten honetan aztertu diren gaiak hauexek dira:

- Urbanizazioko bukaera – materialak: Jarritako materialak urbanizazio proiektuan onartu zirenekin bat datoz.
- Urbanizazioko altzariak eta haur-jokoa: Jarritako altzariak urbanizazio proiektuan onartu zirenekin bat datoz. Jarritako haur-jokoa egokia da.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Udalak urbanizazioko 1. fasea hartzea eta jasotzeko akta sinatzea.

BIGARRENA.- Aitor Etxaide Agirre udal teknikaria izendatzea urbanizazioa hartzeko akta sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Hirigintza Departamentuari.

8. ENERGIA ELEKTRIKOAREN HORNIDURA. FORU KONTRATAZIOAREN ZENTRALAREN ESLEIPEN PROPOSAMENA. IBERDROLA CLIENTES SAU.

Diputatuen Kontseiluaren 2017ko abenduaren 19ko erabakian jasotako eskuordetza medio, Gobernanzako eta Gizartearekiko

Mediante Orden Foral del Diputado de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad de 15 de marzo de 2018, actuando por delegación del



TOLOSAKO
UDALA

Komunikazioko foru diputatuak 2018ko martxoaren 15eko foru aginduen bitartez, IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., I.F.Z. A95758389 enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektrikoaren hornidura kontratatzeako esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Tolosako Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa sinatu ondoren, aipatu horniketaren beharra dela eta, energia elektrikoaren hornidura buruzko kontratua, Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Administrazio honek kontratatzea beharko duen horniketaren zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 350.106,40 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Tolosako Udalak Iberdrola Clientes, S.A.U, I.F.Z. A95758389, enpresari ondorengo prezioa ordainduko dio: zerbitzua/horniketaren eskaerari dagozkion prezioak aplikatuz ateratzen denaren arabera, "I. Eranskina - Eskaintza Ekonomikoa" delako tarifak kontutan hartuz, gehi BEZa, zerga honi lotuak datozen kasuetan.

Prezio horren barne daude kontratua osorik betetzeko egin

Consejo de Diputados según facultades atribuidas por el acuerdo de ese órgano de 19 de diciembre de 2017,, se resolvió concluir con IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., N.I.F. A95758389 , el expediente "Acuerdo Marco para la contratación del suministro de energía eléctrica a través de la Central de Contratación Foral"

Corresponde al Ayuntamiento de Tolosa en tanto ente adherido al presente expediente tramitado por la Central de Contratación Foral, de conformidad con el art. 6 del Decreto Foral 3/2011, de 22 de febrero, la adjudicación, formalización y autorización del gasto correspondiente al contrato derivado del Acuerdo Marco, del que interesa esta administración.

Una vez perfeccionado el Acuerdo Marco, dejando constancia de la necesidad de contar con el mencionado suministro, propone adjudicar y formalizar el contrato de suministro de energía eléctrica con la mercantil con la que se concluyó el acuerdo marco.

La demanda previsible del suministro a contratar por parte de esta Administración, hace estimar un gasto aproximado anual de 350.106,40 €, IVA excluido.

El precio que abonará el Ayuntamiento de Tolosa a Iberdrola Clientes, S.A.U., NIF nº A95758389 será el resultante de la demanda de los servicios/suministros por las tarifas correspondientes, según el "Anexo I – Propuesta económica", al que se sumará el importe correspondiente en concepto de IVA a los supuestos sujetos a dicho tributo.

En dicho precio están incluidos cuantos gastos sean necesarios



TOLOSAKO
UDALA

behar diren gastu guztiak ere.

Prezioak ez dira berrikusiko baldintza administratiboen agiriaren karatulako 28. atalarekin bat.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., I.F.Z. A95758389 enpresari esleitzea, sinatutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

para el cumplimiento total del contrato.

Los precios no serán revisables de acuerdo con el apartado 28 de la carátula del pliego de cláusulas administrativas.

Por ello, y de conformidad con lo dispuesto en el art.198 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, procede en estos momentos adjudicar el contrato derivado a la empresa IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., N.I.F. A95758389, con arreglo a los términos establecidos en la conclusión del acuerdo marco.

Por todo ello, la Junta de Gobierno, a propuesta de la Técnico de Intervención, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

LEHENA.- Esleitzea IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., I.F.Z. A95758389 enpresari, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektrikoaren hornidura kontratatzeako esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARRENA.- Baimentzea eta xedatzea IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., I.F.Z. A95758389 enpresaren alde, aurtengo ekitaldiari dagokion 350.106,40 euroko gastua.

HIRUGARRENA.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen

ACUERDA

PRIMERO.- Adjudicar el contrato derivado del "Acuerdo marco para el suministro de energía eléctrica a través de la Central de Contratación Foral" a la empresa IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., N.I.F. A95758389, en los términos establecidos en la conclusión del propio acuerdo marco.

SEGUNDO.- Autorizar y disponer el gasto imputable al presente ejercicio que asciende a la cantidad de 350.106,40 € en favor de IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., N.I.F. A95758389.

TERCERO.- Formalizar el contrato con la empresa adjudicataria.

CUARTO.- Dar cuenta de este



TOLOSAKO
UDALA

berri ematea Kontuhartzaitzari.

acuerdo al Departamento de
Intervención.

9. TAO GUNEEN BERRANTOLAKETA.

Tolosako herrian TAO sistema hasi zenetik, hainbat zabalkuntza eta aldaketa izan dira guneak ezartzeko garaian. Hauetako batzuk etorri dira kudeaketa konkurtsora ateratzearekin batera; beste hainbat, berriz, obra batzuekin lotuak.

Azken biak izan dira, bata 2010ean, Belate pasealekuko obrarekin batera, eta bestea 2013an, Uzturre kaleko obra eta TAOren kudeaketa berriaren batera.

Gaur egun, Nafarroa eta M.J. Iraola etorbideetako obrek behartu gaituzte antolaketa berrantolatzerara, zona horietan dauden beharreatatik eta geratu diren espazioak egokitu ahal izateko.

- Nafarroa etorbidean: batetik, alde bateko gune marroia (bakoitiak) kendu egin da eta, bestetik, 20 minutuko gunea lekuz aldatu da (Kaiz denda paretik Estanko parera). Samaniego, Nafarroa etorbideetik Emeterio Arresera, gune marroi bihurtu da.
- M.J. Iraolaren luzapena (Elkano 11-13 zenbakien pareko alderdia) gune urdin bihurtu da.

TAOko baldintza-pleguak honela dio bere 7. artikuluko a) eta e) ataletan:

Udalak ahalmena du zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak aldatzeko, eta, besteren artean, eskumen hauek ditu:

a) Beste bide publiko batzuk gehitu eta, modu horretara, zerbitzua zabaltzekoa, eta kontroleko gailu gehiago ezartzekoa. Bide publiko horiek egon daitezke prozedura ireki honen xede diren bideen ondoan edo ez.

e) Gune bakoitzean sektoreen banaketa aldatzekoa.

Hori guztia kontuan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Nafarroa etorbideko gune marroian, urdinean eta 20 minutukoan egin diren aldaketak.

BIGARRENA.- Onartzea Martin Jose Iraola etorbideko gune urdinean egin diren aldaketak.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Udaltzaingoari.

10. 21/2018 ETA 22/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.



TOLOSAKO
UDALA

Kontuhartzaitzak **21/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **47.293,03 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-21 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **22/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **435.596,32 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-22 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA